

Martxoak 17, greba deialdia

Jakinarazten da, datorren martxoaren 17rako deituta dagoen greba deialdiaren inguruan Lankide Batzarra ospatu zela eta bozketa egin ondoren, greba deialdiarekin bat egitea erabaki zuela Udarregi Ikastolako langileak.

Ikastolan soilik Eusko Jaurlaritzak argitaratutako gutxieneko zerbitzuen dekretuak adierazitakoa bermatuko da.

Eusko Jaurlaritzak zerbitzu minimoak zehazten dituenean, familiei jakinaraziko zaizue.

Zerbitzu osagarrien kasuan, garraioa, goizeko zaintza eta jangela egongo diren edo ez ezin dugu bermatu.

Bestetik, **ez da ZIRIMARAKO saiorik egongo**, bertako langileek ere, martxoak 17ko GREBA orokorrekin bat egingo dutelako.



Martxoaren 25eko KORRIKA: antolakuntza eta ordutegiak

Badator Korrika! Aurtengoan ere ilusio handiz itxaroten dugu, eta **martxoaren 25ean**, 13:45 inguruan, gure herritik igaroko dela aprobetxatuz, egun berezia antolatu dugu ikastolan.

Egun hori ikastolan **irteera-egun bat bezala** antolatuko dugu, eta ikasleak Korrikaren giroaz gozatzea irtengo dira. Ikasleak hamaiketako eta bazkaria ekarri behar dute.

Hona hemen egunari buruzko xehetasun garrantzitsuak:

- **Korrikako Parte-hartzea mailaka:** Ekintza honetan ikasleek modu desberdinetan hartuko dute parte euren mailaren arabera:



- **HHtik LH 5era:** Ikusle gisa joango gara giroaz goatzera eta korrikalariak animatzera.
- **LH 6ko ikasle-irakasleak:** Korrika egingo dute. Aurten ere, euren proiektuari esker, kilometro bat erosteko aukera izan dute eta lekukoa eramango dute.
- **DBHko ikasleak** korrika aterako dira Korrikan.
- ❖ **Ordutegi orokorra:** Ikasleak gurekin egongo dira irteeretako ohiko ordutegian, hau da, **9:00etatik 16:30etara**.
- ❖ **Familiarekin Korrika egitera ateratzeko aukera:** Badakigu ikasle batzuek Korrikan ateratzeko gogoz daudela. Horregatik, bi aukera egongo dira ikasleak 12:30ean ikastolatik irteteko:
 - Zuen seme-alabarekin Korrikara joan nahi baduzue, **12:30ean** jaso ahal izango dituzue betiko moduan.
 - Ikasleren batek 12:30ean ikastolatik **bakarrik atera behar badu**, ezinbestekoa da etxetik **baimen orri hau sinatuta ekartzea**. ([linka](#))

OHARRA: 12:30ean irteten den ikasleak ez gaitu 14:30ean ikastolan topatuko, Korrika ikusteko herrian zehar ibiliko garelako.

Ulertuko duzelakoan eta aldeztu aurretik zuen laguntza eskertuz, goazen Korrikaz goatzera!

Proiektu solidarioa KORRIKArekin alde

Gaur ere LH 6ko ikasleak ikastolako frontoian izango gara 16:20etik 16:40era [azoka solidarioa](#) dela eta.

“Autismora hurbiltzen” hitzaldia

Autismoaren inguruko kontzientziazio eta ahalduntze hitzaldi-tailerra izango da.



Perfil honetako haur baten jokaera eta jarrera asko ulertzea zail egiten zaigu, eta sarri askotan, ezjakintasunak eta beldurrak eraginda, pertsona hauekiko aldentzeko joera izan dezakegu. Autismoa duen pertsonaren bat aurrean izanez gero, baliagarri izango den informazioa eskainiko da. Hau da, inguruan izan daitekeen persona neuroanitz hori piska bat hobeto ulertu eta harreman goxoago eta naturalago bat izateko, baliabide eta erremintak eskaintzea izango da helburua. Bizi dugun gizarte honetan aniztasuna errealitate bihurtzea, guztion elkarlanaren baitan dagoela uste dugulako.

NOIZ: martxoaren 23an 17:00etan.

LEKUA: Agerialdeko 3. solairuan (LHko 2. zikloa)

NORENTZAT: Gurasoei zuzenduta dago baina interesa izan lezakeen edonorentzat aberasgarria izan daiteke.

HIZLARIAK: Miriam (haur autista baten ama) eta Xabi Gesalaga (Udarregiko hezitzailea).

Tailerrera etortzeko asmoa izango bazenute, mesedez **bete [galdetegi hau](#)** martxoaren 13a baino lehen.

Altxa Burua I. Topaketa

2025eko urrian Eibarren Altxa Buruaren I. topaketa orokorra egin zen eta bertan Francisco Villar izan zen hitzaldia ematen. Haur eta gazteen psikologoa da, psikologia klinikoan eta nerabezaroko jokabide suizidetan aditua. Hitzaldi horretan pantailek haur eta gazteengan duen eraginari buruz aritu zen. Merezi du ikusteko eta entzuteko denbora hartzea. [Ikus bideoa](#).



Irakurketa-solasaldia

Martxoaren 16an, 17:30ean Sutegi Liburutegian, IRAKURKETA-SOLASALDI saio berri bat; 11-12 urtetik gorakoei zuzendua (**LH6-DBH**), Yolanda Arrietaren **TXOKOLATEGIA** izango dugu **mintzagai**.

Lliburuak jada **eskuragarri** ditugu Liburutegian). Txokolatea tartean izango dugu, nola ez!



Udako udalekuak

Zirimolak -Ikastolen Aisialdi Taldea- 2026ko **udako eskaintzarako** izen-ematea **bihar, martxoak 14**, itxiko du.

[Informazio gehiago...](#)



Errigoraren kanpaina berria martxan da

Martxoaren 18ra amaituko da Errigoraren "Eskutik eskura egiten dugu herria" kanpaina. Nafarroa erdialdean eta hegoaldean ekoiztako produktuak eskuratzearen truke, irabazien laurdena zonalde hartako euskaingintzara bideratuko da beste behin. Aurtengo 24. Korrikak Errigora egitasmoa omendu nahi du. "Hiru ardatz nagusi ditu Errigorak: euskara, auzolana eta elikadura-burujabetza.

Oraingo honetan, oliba-olio birjina estra, kontserbak, arroza, pasta, lekaleak eta ardo loteak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorriko prezioan erosi ahalko dituzue. Eskabideak ohi bezala, NOAUA! Kultur Elkartean nahiz errigora.eus bidez egin ahalko dituzue. [Informazio gehiago...](http://informazio.gehiago...)



HAUR HEZKUNTZA

Zorriak

HH3 eta HH 4ko ikasle batzuen zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higie-neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HAUEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA.



Baso eskola

Honako egun hauetan ez da baso eskolarik izango:

HH3: martxoaren 24an.

HH5: martxoaren 25ean.

HH4: martxoaren 27an.



Paperezko poltsa

Gogorarazi nahi dizuegu ikasleek hiruhileko honetan egindako lanak etxera eramateko, paperezko poltsa ekarri behar duzuela.



Ipuin kontaketa

Martxoaren 26an, osteguna, 18:00etan, Sutegi Liburutegian, IPUIN KONTAKETA saioa LUR KORTAren eskutik, **HH3 eta HH5** bitarteko haurrentzat eta beren guraso edo zaintzaileentzat. Gonbidatuta zaudete!!!



LEHEN HEZKUNTZA

Irteera kobrantza LH4

Datorren **asteazkenean**, martxoak 18, LH 4. mailako ikasleek kurso amaierako irteeraren 2. zatia (**30,20 €**) kobratuko da.



LH 3koen irteera.

Datorren asteazkenean, martxoak 18, LH 3. mailako ikasleak ibilaldia egingo dugu Oriora.

Itzulera trenean egiteko asmoa dugunez **MUGI** txartela eramatea ezinbestekoa izango da. Eskola ordutegia errespetatuko da (9:00-16:30).



Zorriak

LH 3ko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higie-neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HAUEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU **DENOK** **ASTE BURU HONETAN** EGITEN TRATAMENDUA.



Galdutako gauzak

Agerialdeko sarreran dagoen "arropa galduen txokoa" dagoen arropa, martxoaren 27an Caritaseko ontzira eramango da.



BIGARREN HEZKUNTZA

Bordelera bidaiia: guraso bilera martxoak 16

Frantsesa ematen duten **DBH3ko** ikasleek Bordelera irteera egingo dute martxoaren 23tik 25era. Horri buruz hitz egiteko eta bidaiari buruzko informazioa partekatzeko, bilera bat antolatuko dugu ikastolan: **martxoak 16, astelehena, arratsaldeko 17:00etan**. Bilera honetan bidaiaren egitarauaz, eraman beharreko gauzetaz, eta abarretaz hitz egingo dugu.



DBH3koen irteera

Datorren **astelehenean**, martxoak 16, DBH3. mailako ikasleek FITOarakatzen disziplinarreko proiektuaren baitan irteera egingo dute Mutiloara. Bertan, Nafarroako Instituto Agrobioteknologikoa bisitatuko dute eta ondoren Iruñean *Irulegitik Pompelora* ekausketa ikustera jongo dira.

Kostua: autobusa **16,50 euro** kobratuko dira **martxoaren 18an**.



Ebaluazio-txostenak

Gogorarazten da, **martxoaren 18an** igoko direla DBHko 2. ebaluazio txostenak Alexia aplikaziora.



KORRIKA

Jakinarazi nahi dizuegu gure DBHko ikasleek **Korrikan** parte hartuko dutela Usulbildik pasatzen den unean.

Ikastetxetik antolatuta, DBHko ikasleek Korrikaren zati batean korrika egingo dute, lekukoa lagunduz eta ekitaldiaren giroan parte hartuz. Hau, klase orduetan egingo dute.

